

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresa batek bere bezeroekin hainbat harreman mota izan ditzake, eta garrantzitsua da, beraz, enpresa-bezero arteko komunikazioa nola gauzatzen den definitzea enpresa bakoitzean.

Harremana pertsonala edota automatizatua izan daiteke. Gure zerbitzuaz etekina ateratzen



duten hiritarrekin ez dugu harreman zuzena izango, gure ideia leku batean inplementatuko duen erakunde batekin baizik. Beraz, erakunde horiekin harreman zuzen eta pertsonala izatea irudituko litzaiguke hoberena gure ideia saltzeko asmotan. Hala ere, denek guri eta gure enpresari buruzko informazioa jaso dezaten, internet bidezko zerbitzu automatizatua eskainiko dugu, hau da, web orri bat sortu eta bertan zintzilikatuko dugu guri buruzko informazio guztia. Web orriaren bidez, erakundeek gu kontaktatzeko baliabideak izango dituzte.

Laguntza pertsonala, autozerbitzua, zerbitzu automatizatua, komunitateak eta beste harreman mota batzuk ere eskaini ahal ditu enpresak. Gure kasuan, zerbitzu automatizatua izango litzateke hoberena, besteak, gure zerbitzu motarekin ez baitira oso eraginkorrak.